



JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA AIRE ZABALEAN

1. Beste udalerrri batera joan zaitezke jarduera fisikoa aire zabalean egiteko?

Bai, jarduera fisikoa aire zabalean egin dezakezu Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan, intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 400 baino gutxiagoko udalerrietan.

Intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 400 edo gehiagoko udalerrietan, mugatu egingo da bizilekua finkatuta duten udalerriko edo, hala badagokio lurralde historikoko pertsonen sarrera eta irteera. Nolanahi ere, udalerrri mugakideen arteko ohiko mugikortasuna baimenduko da, lurralde historikoa edozein dela ere, jarduera fisikoa aire zabalean egiteko.

2. Egin al daiteke jarduera fisikoa eta kirola taldeka (korrika egitea, bizikletaz ibiltzea)?

Bai, federatu gabeko kirol-jarduera fisikoa bakarka edo taldeka egin ahal izango da aire zabalean, kontaktu fisikorik gabe, eta aldi berean 6 laguneko taldeetan, gehienez ere.

3. Nahitaezkoa al da maskara erabiltzea jarduera fisikorako eta kirolerako?

Kirol-jarduera orotan, nahitaez erabili beharko da maskara. Hauek dira salbuespenak: eremu naturaletan, hirigune periferikoetan (oinezkorik gabe), igerilekuetan, lehiaketa profesionalean edo erdi-profesionalean ari diren taldeen entrenamenduetan, lehiaketetan eta kanpoan egiten den intensitate altuko une berezietan.

4. Baimenduta al dago ehiza-jarduera modalitate guztietan, bai eta ibaiko eta itsasoko arrantza, kirol-arrantza eta jolas-arrantza ere, modalitate guztietan?

Ehiza-jarduera mota guztiak eta Ibaiko eta itsasoko arrantza, kirol-arrantza eta jolas-arrantza mota guztiak baimentzen dira, betiere pertsonen arteko segurtasun-distantzia mantentzen bada.

5. Nahitaezkoa al da maskara erabiltzea ehiza-jarduera guztietan, bai eta ibaiko, itsasoko, kiroleko eta aisialdiko arrantzako modalitate guztietan?

Bai, nahitaezkoa da, nahiz eta pertsonen arteko segurtasun-tartea 1,5 metrokoa izan, ez datorrelako bat jarduera fisiko bizi batekin.

6. Zein da baimendutako edukiera kirol-eremuetan, patinaje-pistetan (skating) edo aire zabaleko erabilera publikoko espazioetan?

Esparruaren azalerako 4 metro koadroko gehieneko edukieran pertsona 1.

**7. Nori dagokio erabilera publikoko espazio horiek antolatzea, bai eta garbitasun- eta higiene-baldintzak bermatzea ere?**

Udalei eta, hala badagokio, administrazio eskudunei dagokie espazioa antolatzea, baita garbitasun eta higiene-baldintzak bermatzea ere.

Aire zabaleko espazio publikoa gehiago erabil dadin sustatzea gomendatzen da, herritarrentzat espazio gehiago egon daitezen.

KIROL-INSTALAZIOAK (Igerilekuak barne)**8. Joan zaitezke autonomia-erkidegoko beste udalerrri batera gimnasioetara, kiroldegietara edo/eta kirol-instalazioetako jardueretara?**

Bai, mugikortasuna Euskal Autonomia Erkidegoan baimenduta dago, gimnasioetan, kirol-klubetan edo kiroldegietako ikastaro edo jardueretarako, intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 400 baino gutxiagoko udalerrietan.

Intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 400 edo gehiagoko udalerrietan, mugatu egingo da bizilekua finkatuta duten udalerriko edo, hala badagokio lurralde historikoko pertsonen sarrera eta irteera. Nolanahi ere, udalerrri mugakideen arteko ohiko mugikortasuna baimenduko da, lurralde historikoa edozein dela ere, ikastaro edo jarduerak gimnasioetan, kirol-klubetan edo kiroldegietan egiteko.

9. Zer kirol-jarduera mota dago baimenduta kirol-instalazioetan?

Kirola bakarka edo taldeka egin ahal izango da, gehienez 6 laguneko taldeetan, instalazioaren berezko protokoloak errespetatuz, intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 400 baino gutxiagoko udalerrietan.

Intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 400 edo gehiagoko udalerrietan, barruko eremuetan egiten diren kirol-jarduerak ez dituzte 4 pertsonako taldeak gaindituko, talde profesionalen eta federatuen entrenamenduei eta lehiaketei eragiten dietenak izan ezik. Kanpoan aldiz, bilkuren muga 6 pertsonakoa da.

10. Baimenduta al dago kirol kantzak alokatzea?

Bai, kirol-instalazioak gehienez 6 lagunentzat alokatu daitezke, kontakturik gabe eta betiere instalazioaren prebentzio- eta edukiera-arauak errespetatzen badira, intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 400 baino gutxiagoko udalerrietan.

Intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 400 edo gehiagoko udalerrietan, Instalazioak alokatzea baimenduta dago; barruan, gehienez ere 4 laguneko jardueretarako eta kanpoan gehienez 6 laguneko jardueretarako. Beti kontakturik gabe eta instalazioaren prebentzio- eta edukiera-arauak errespetatuz.

11. Derrigorrezkoa al da maskara erabiltzea kirol instalazioetan?

Bai, aire zabaleko zein itxiko kirol-instalazioetako kirol-jarduera orotan nahitaez erabili beharko da maskara.

Igerilekuetan eta kanpoan egiten den intentsitate altuko jarduera fisikoko une berezietan izan ezik.

12. Zein da kirol-instalazioetan, igerilekuak barne, baimendutako gehieneko edukiera?

Baimendutako gehieneko edukieraren %50 izango da.

13. Aldagelak eta dutxa-guneak erabil daitezke?

Bai, aldagelak erabili ahal izango dira betiere gehieneko edukieraren ehuneko 35eko okupazioarekin, intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 400 baino gutxiagoko udalerrietan.

Intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 400 edo gehiagoko udalerrietan, aldagelak eta dutxak itxi egingo dira kirol-instalazio mota guztietan, igerilekuetan izan ezik; horietan, aldagelak erabili ahal izango dira gehieneko edukieraren %35eko mugarekin, eta dutxak erabili ahal izango dira, baldin eta banakakoak badira.

Halaber, dutxak erabili ahal izango dira, baldin eta banaka erabiltzen badira. Maskara nahitaez etengabe erabili beharko da, dutxatzeko unean izan ezik, eta une oro errespetatuko da erabiltzaileen arteko segurtasun-distantzia. Aldagelak etengabe aireztatu beharko dira erabiltzen diren bitartean eta, gainera, ireki aurretik eta itxi ondoren. Aireztapena mekanikoa bada, kanpoko airearen sarrera maximizatu beharko da eta airearen birzirkulazioa saihestu. Hala ere, komeni da gogoraraztea aerosolak transmisio-bide garrantzitsuak direla, eta beraz, distantziarik eta aireztapenik gabeko espazio itxiak saihestu behar direla.

14. Ikastaroak edo jarduerak taldeka egin daitezke?

Bai, jarduerak gehienez 6 pertsonako taldeetan egin ahal izango dira, intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 400 baino gutxiagoko udalerrietan. Betiere maskararekin egiten badira, kanpoan egiten den intentsitate handiko jarduera fisikoko aparteko uneetan izan ezik, eta aforoaren edukiera %50era mugatuta badago.

Intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 400 edo gehiagoko udalerrietan, ikastaroak barne instalazioetan, gehienez 4 pertsonako taldeetan eman ahal izango dira eta kanpoan aldiz, gehienez 6 laguneko taldeetan. Baldin eta maskara batekin egiten badira eta aforoa edukieraren %50era mugatuta badago.

15. Klase batean talde bat baino gehiago egon daitezke aldi berean?

Bai, talde bat baino gehiago egon daitezke aldi berean, maskara erabiltzen bada, kanpoan egiten den intentsitate handiko jarduera fisikoko une berezietan izan ezik, taldeen arteko distantzia errespetatzen bada, taldeak ondo mugatuta badaude eta taldeen arteko harremanik ez badago.

**16. Taldeko arduradunak izan al dezake harremanik kirolariarekin?**

Ez, kontaktua ez dago baimenduta inoiz.

17. Pertsona bat izan daiteke talde bat baino gehiagoren arduraduna aldi berean?

Bai, pertsona bat talde baten baino gehiagoren arduraduna izan daiteke.

18. Talde adina arduradun egon al daitezke?

Bai, talde bakoitzean arduradun bat egon daiteke, eta ezin da haien artean kontakturik izan.

19. Zein da kirol-instalazioak irekitzeko eta ixteko baimendutako ordutegia?

Instalazioak goizeko 6etatik aurrera ireki ahal izango dira jendearentzat eta 21:00etan itxiko dira. Ordu horretatik aurrera, langileek geratzen den barne-jarduerak egin ditzakete.

ENTRENAMENDU ETA LEHIAKETA FEDERATUAK ETA PROFESIONALAK**20. Entrenatu dezake kirolari federatu batek?**

Bai, bizi den udalerrria ez den beste udalerrri batera entrenatzera joan daiteke, autonomia-erkidego barruan.

21. Lehiatu dezake kirolari federatu batek?

Bai, bizi den udalerrria ez den beste udalerrri batera egutegi ofizialeko probak egiten diren lekuetara joan daiteke. Federazio bakoitzari, bere eremuan, eta, kasua bada, lehiaketa bakoitzaren ardura duten erakundeei dagokie prebentzio-neurriak eta -protokoloak zorrotz betetzen direla zaintzea.

22. Baimenduta al daude lehiaketa federatuan murgilduta dauden kirolarien lagunarteko lehiaketak?

Bai, baimenduta daude.

23. Entrenamenduetarako joan-etorriak nolakoak izango dira?

Entrenamenduetara joateko eta talde-kirolak egin aurreko eta ondorengo uneetan, segurtasuneko pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia, sei laguneko taldeak eta maskara erabiltzeko oinarrizko prebentzio-neurriak gordeko dira.

24. Maskara erabiltzea derrigorrezkoa al da?

Bai, une oro. kirol-jarduera orotan, nahitaez erabili beharko da maskara. Hauek dira salbuespenak: eremu naturaletan, hirigune periferikoetan (oinezkorik gabe), igerilekuetan, lehiaketa profesionalean edo erdi-profesionalean ari diren taldeen entrenamenduetan, lehiaketetan eta kanpoan egiten den den intensitate altuko une berezietan.

**25. Lehiaketa eta entrenamenduetan gaudenean, aldagelak erabil daitezke?**

Intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 400 baino gutxiagoko udalerrietan, BAI, aldagelak erabili ahal izango dira bai entrenamenduetan eta baita txapelketetan ere, betiere gehieneko edukieraren %35eko okupazioarekin. Halaber, dutxak erabili ahal izango dira, baldin eta banaka erabiltzen badira,

Entrenamenduetan ezingo dira erabili, BAI ordea txapelketetan (gehieneko edukieraren %35eko mugarekin), intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 400 edo gehiagoko udalerrietan,

Maskara nahitaez etengabe erabili beharko da, dutxatzeko unean izan ezik, eta une oro errespetatuko da erabiltzaileen arteko segurtasun-distantzia. Aldagelak etengabe aireztatu beharko dira erabiltzen diren bitartean eta, gainera, ireki aurretik eta itxi ondoren. Aireztapena mekanikoa bada, kanpoko airearen sarrera maximizatu beharko da eta airearen birzirkulazioa saihestu. Hala ere, komeni da gogoraraztea aerosolak transmisio-bide garrantzitsuak direla, eta beraz, distantziarik eta aireztapenik gabeko espazio itxiak saihestu behar direla.

ESKOLA KIROLA**26. Zer da eskola-kirola?**

Lehendakariaren urtarrilaren 12ko 1/2021 Dekretuan ezarritakoaren ondorioetarako, eskola-kiroltzat hartzen da federatu gabeko kirol-jarduera antolatu oro, baldin eta 6 eta 16 urte bitarteko ikasleek eskola-orduetatik kanpo egiten badute derrigorrezko eskolaldian, edozein dela ere jarduera antolatzen duen erakundea eta aldi berean eskola-kiroleko programetako den ala ez.

27. Zer jarduera egin dezakete eskola kirolean?

Eskola-kiroleko entrenamenduak bere horretan jarraitzen dute, eta gehienez ere sei pertsonako taldetan antolatu beharko dira, taldeak berdin mantenduz, intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 400 baino gutxiagoko udalerrietan.

Intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 400 edo gehiagoko udalerrietan, Eskola kiroleko entrenamenduak barne instalazioetan, gehienez 4 pertsonako taldeetan egin ahal izango dira eta kanpoan aldiz, gehienez 6 laguneko taldeetan, taldeak berdin mantenduz.

28. Eta lehiaketa?

Eskola-kiroleko lehiaketak etenda daude.

**29. Baimenduta al daude eskola-kiroleko entrenamenduetarako joan-
etorriak?**

Bai, baldin eta jatorrizko eta helmugako udalerriek Intzidentzia-tasa Metatua 100.000 biztanleko 400 kasu baino gutxiagokoa badute. Bestela bakarrik joan-etorri ahalko dira mugakide diren eta ohiko zirkulazioa duten udalerrietara, edo ikasketak egiten dituzten ikastetxeetara.

30. Pertsona bera, talde baten baino gehiagoren arduraduna izan daiteke aldi berean?

Bai, pertsona bera talde baten baino gehiagoren arduraduna izan daiteke.

31. Maskara erabili behar da eskola kirolean?

Bai. Eremu naturaletan, oinezkorik gabeko hiri-ingurune periferikoetan, uretako jardueretan eta kanpoan egiten den instantsitate altuko une berezietan izan ezik.

32. Aldagelak eta dutxak erabil ditzakete eskola kirolean?

Ez, ezin dituzte aldagelak eta dutxak erabili, erabiltzaileek erabili behar dituzten igerilekuetako aldagelak izan ezik.

33. Eskola kiroleko jarduerak protokoloen bat izan behar dute?

Foru Aldundietako Eskola Kiroleko Programetan izena emanda dauden entitateek egiten dituzten jarduerak eta horiek baimentzen dituzten beste jarduerak, indarrean dauden arauari jarraikiz eguneratutako jarduketako protokoloa izan beharko dute.

Ikastetxeetan egiten diren jarduerak hauen protokoloak errespetatu beharko dituzte eta, halaber, hirugarrenen instalazioak erabiltzen direnean, horietarako ezarritako protokoloak errespetatu beharko dira.

34. 2007. urtean eta ondorengo urteetan jaiotako ikasleek lizentzia federatua lor dezakete?

Oro har, egungo osasun-egoerak irauten duen bitartean, foru-organoez ez dute baimenik emango 2007an eta hurrengo urteetan jaiotako eskola-umeentzako lizentzia federatuak emateko. Inguruabarrek hala eskatzen dutenean, Foru Aldundiek zenbait salbuespen baimendu ahalko dituzte, betiere Eskola Kiroleko Euskal Batzordearen onespenerekin.

LEHIAKETAK. KIROL-EKITALDI ETA IKUSKIZUNAK.**35. Zein da eskumena duen erakundea lehiaketa garatzeko baimena eman behar duena?**

Baimena ematea bidezkoa denean, erakunde eskuduna, egoera arruntean eskuduna dena izango da.

36. Joan al daiteke lehiaketa, ekitaldi edo kirol-ikuskitun bat ikustera?

Ez, debekatuta dago ikusleak kirol-ekitaldietara joatea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 30a

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARITZA